

IZARRAREN HAUTSA

Itziar Alkorta ■ ZUZENBIDEAN DOKTOREA. LAGUNDURIKO ERNALKUNTZAREKIN LOTURIKO GAJETAN ADITUA

Neska ala mutila?

Erresuma Batuko Giza Ugaltze Medikuntzaren Agentziak (HFEA) dokumentu berri bat zabaldu zuen joan den astean garrantzi handiko gai korapilatsu bati buruz britainiarren iritzia biltzeko asmoz. Hona HFEAk egindako galdera: aukera eman behar al diegu gurasoei beren umeen sexua erabakitzeke? (www.hfea.gov.uk).

Jakina da gizakion *emetasun* nahiz *artasuna* —sexua, alegia— kromosoma kontua dela. Gizonezkoen haziaren 21. kromosomak erabakitzen du hain zuzen sortzeko dagoena emea ala arra izango den. Bi modu daude, oraingoz, alde aurretik jaioko denaren sexua aukeratu ahal izateko. Bata da, espermatozoideak bereiztea: X karga dutenak (emeak) alde batetik eta Y kargakoak (arrak) bestetik. Izan ere, X-ak Y-ak baino astunagoak dira —begi bistakoa izaki Y-ak adartxo bat gutxiago duela X-ak baino!—. Metodo hori, ordea, ez omen da guztiz fidagarria: behin baino gehiagotan gertatu izan da espermatozoide emeak eta arrak nahastea...

Bigarren metodoa seguruagoa ei da, giza hazia aztertu ordez, enbrioia aztertzen baita zuzenean. Nola egiten den hori? Bada, lehendabizi, emakumearen eta gizonaren hazia laborategian ernal-

du eta enbrioio mordoia sortu; ondoren, ernaldutako *in vitro* enbrioiei zelula bat erauzi (kontu handiz umekiari kalterik ez eragiteko), eta zelula horren genoma analizatu: 21. kromosoma XX izanez gero, emakumea izango da, bestela, mutila. Azkenik, enbrioio arrak eta emeak identifikatu eta gero, gurasoei galdegiten zaie zeintzu transferitu behar zaizkion amari.

Ingalaterran indarrean dagoen araudiaren arabera, metodo horiek erabiltzeko aitzakia bakarra da umearen sexuari lotutako gaixotasun larriak ekiditea —hemofilia edo X ahularen sindromea, esaterako—. Bestelako arrazoiak ez dira kontuan hartzen. Gauza bera esaten du Espainiako legediak ere.

«Inportantea da guretzat gai horri buruzko iritzia jakitea», zioen Suzi Leatherrrek, HFEAko buruak, joan den astean. «Jasotako erantzun guztiak aztertu eta, adituekin batera, gomendio bat egingo diogu Gobernuari sexu aukeraketari buruz». Izan ere, britainiar askok Estatu Batuetara jotzen du (Virginia) Fairfax hirian dagoen Genetics & IVF Institute klinika pribatura) umeen sexua aukeratzeko; bertan ez baitago hartarako legezko oztoporik (eragozpenik egotekotan, ekonomikoa izango litzateke, sei

mila dolarretik gora kostatzen baita MicroSort delako teknika erabiltzea).

Britainiarrak zertan diren aipatu dugu jada, baina, demagun Osakidetza ere sexu aukeraketaren bidetik abiatzen dela eta euskaldunoi galdetzen digula zer irizten diogun auzi horri. Zer erantzungo luke jendeak?

Seguruenik, batek baino gehiagok zera pentsatuko du: eta, zergatik ez utzi gurasoei beren umeen sexua erabakitzen? Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatua dagoen herrietan askatasuna eman beharko litzaieke gurasoei neskak edo mutilak izan nahi dituzten erabakitzeke (ez, ordea, Txinan edo Indian). Horrek onura ugari ekar litzake, ez bakarrik hiritarrek askatasun maila handiagoa erdiesten dugulako, baita, horrela, ume gehiago izango genituzkeelako ere: dagoeneko neska edo mutila izanda, *parejatxo*a osatzeko pagotxa bagenu, seguru animatuko ginatkeela bat baino gehiago bigarrena (eta hirugarrena) ekartzera.

Ordea, sexu-aukeraketaren abantaila horietan gehiago sakonduz, galdera banaka batzuk sortzen zaizkigu askori. Egia da Fairfaxeko aipatu klinikan guraso gehienek eskaria izaten dela *parejatxo*a sortzea; baina, ez edozein ordenean: lehendabizikoa mutila izan dadin

nahi dute eta bigarrena neska. Izan ere, guraso horien ustez, mutikotxoak babestu egingo baitu arrebatxoa, eta, bestalde, premuaren gloriak ere hobeto eramango baititu, dudarik ez, mutilak neskak baino... Emakume naizen legez, beste ohar batzuk ere otutzen zaizkit: umearen sexua aukeratu ahal izateko, lehendabizi, obuluak erauzi behar zaizkit. Alegia, hiperobulazioa eragiteko medikazio arriskugarria hartu behar dut. Behin hori igarota, haurdun gelditu ahal izateko, intseminazio artifiziala nahiz IVEa (in vitro ernaldutako enbrioien transferentzia) beharko ditut. Metodo horien bitartez, ordea, haurdun geratzeko aukerak, hamarretik hiru besterik ez dira; eta, hori guztia gutxi ez dela, enbrioien inplantazio tasa hobetzeko berriz ere medikazioa hartu beharko dudan... *Last but not least*, hazien eta enbrioien manipulazioa umearentzat kalterik gabea den oraindik frogatzeko dago. Beraz, litekeena da, prozedura horren ondorioz jaiotakoak, hazterakoan, gaixotasun kromosomikoak izatea.

Azkenean, sexua aukeratzearen aldeko eta kontrako argudioak neurtuz, gehientsuenok erantzungo genuke umeari gaixotasunik ez transmititzearen prozedura luze eta arriskutsu horri ekitea arrazoizkoa dela, baina, gurasoen gutzia hutsa denean, ordea, neuk behintzat zera erantzungo nioke HFEAri (eta baita Osakidetzaari galdetuko balit ere): *do we need all this?*

Gorka Quevedo | DONOSTIA

Urte luzez munduko txakurrik ezagunena bilakatu zen *Laika*. Gerra Hotza pil-pilean zegoen, eta Sobietar Errepublikaren Sozialisten Batasuna (SES) eta Ameriketako Estatu Batuak (AEB) *espazio*ko konkista izeneko lasterketa batean murgilduta zeuden. Buru-belarri. Hala, 1957. urteko azaroaren 2an SESBk *Laika* zerura bidaltzea lortu zuen, espaziora zihoan lehen biziduna zen. Gertakari hark oihartzun handia izan zuen, eta *Laika* milaka pertsonen ikur bilakatu zen.


Zoritxarrez, *Laika* ez zen Lurrera bizirik itzuli. SESBko agintariek jakitera eman zutenez, ontzia aireratu eta astebeteren buruan zendu zen, oinazetik gabe. Iragan astean, ordea, Moskuko Arazo Biologikoen Institutuko kide Dimitri Malashenkovek gezurtatu egin zuen duela 45 urte emandako bertsioa. Iragarpen bitxia Errusiatik milaka kilometrotara egin zuen, Houstonen (Ameriketako Estatu Batuak) buruturiko Espazioaren Mundu Biltzarrean.

Lau ordu eman zituen espazioan hil aurretik

Sputnik 2 ontzian bidali zuten *Laika* espaziora. Lehenago SESBk *Sputnik 1* ontzia igorri zuten. Hala ere, ontziak ez zeu-

Zeruan betiko gelditu zen txakurra

‘LAIKA’-REN HERIOTZA. Espaziora joan zen lehen biziduna estresa eta beroaren erruz hil zela iradoki dute, orain arteko bertsioa gezurtatuz



NASA
Laika txakurra espaziora bidali aurretik.

kan bidaiaririk. Lehenengoz bizidun bat espaziora joango zela azkar zabaldu zen mundu osoan. Agintariek argi eta garbi

utzi zuten *Laika* arazorik gabe bueltatuko zela, eta bere bizitza ez zegoela arriskuan.

Jaurtiketaren ostean susmo

AZALPENA

Bertsio ofiziala ukatuz, ‘Laika’ beroaren eta estresaren erruz hil zela adierazi du Dimitri Malashenkov

txarrak hasi ziren. SESBko agintariek lehenengoz onartu zuten *Laika*-ren bizitza arriskuan zegoela, eta ez zela segurua Lurrera bizirik bueltatuko zen ala ez. Irarpenak haserrea eta samindura sortu zuen.

Iragarpenik ezkorrenak bete egin ziren, eta *Laika* ontzian hil zen. Dena den, Malashenkovek aditzera eman duenez, *Laika* ez zen aireratu eta zazpi egunera hil. Malashenkovaren arabera, *Laika* espazioan lau ordu inguru zeramatzala hil zen, beroaren eta estresaren ondorioz. *Sputnik 2* aireratu eta bost ordura

galdu zen bizi seinale oro. *Laika* hil aurretik ontziak lau bira eman zituen Lurraren inguruan. Heriotzaren ostean beste 2.570 bira eman zituen, 1958ko apirilaren 4an ontzia atmosferan deuseztu zen arte.

Amaiera tristeko bizitza harrigarria

Laika-ren bizitza film batetik ateratakoa dirudi. Moskuko kaletan bizi zen; ez zuen jaberik, eta egun osoa noraezean ibiltzen zen, janari bila. Egun batez, *Laika* harrapatu zuten, eta espaziora bidaltzeko prestaketei ekin zioten. Hiru txakur aritu ziren zerura joateko prestatzen: *Albina*, *Laika* eta *Mushka*. Azkenean, *Laika* txakurrik prestatuen zela ondorioztatu zuten, eta bera aukeratu zuten misio aintzindaria burutzeko.

Kontuak kontu, *Laika*-ren heriotza esperientzia nabarmena izan zen SESBko agintarientzat. Izan ere, bizidun batek espazioan bizirauteko beharrezkoak diren baldintzen inguruan gauza asko jakiteko parada izan zuten. Malashenkovek onartu duenez, hasiera batean ontzian ezarritako baldintzek huts egin zuten. Hotz-beroa eta hezetasuna nabarmen handitu ziren, eta oxigeno sorgailuak ez zuen ongi funtzionatu. Filmetan ez bezala, *Laika*-ren istorioak amaiera tristea izan zuen.